



ASANBLADA

zeugaz
HOBETO!

ASTRA ASANBLADA

2014.01.18

BERTARATUAK

1	KOLDO	lurgozo-galtzagorriak
2	KOBE	hackelarre
3	OSKAR	arratzu.arrolape
4	HIBAI	begihandi
5	ANTTON	
6	IBAN	
7	ARIANE	egitarau lan taldea
8	INAKI	
9	SV	
10	DEBENE	herrira
11	IRATI	ernai-ikasleasanblada
12	JONE	ernai
13	OIER	herrira
14	ANDREA	jailarai
15	AINHOA	arkibai-pasi
16	ISA	arkibai-pasi
17	LIHER	
18	OIHANE	
19	INDIO	hackelarre
20	KIMETZ	hackelarre
21	EUNATE	gernikatik mundura
22	HIBAI	lobak
23	GOIZANE	bitartekaria
24	LEIRE	kafea eta galletak
25	ENDIKA	rubelari taldea
26	PELO	rubelari taldea
27	MIKEL	pasi
28	JOHANA	
29	ADRI	iparragirre
30	SAIOA	
31	BIR	
32	LUKEN	txutxu-egitaraua
33	GORKA	
34	EGOITZ	astra zinema forum
35	PERNAN	EHE

AKTA

- Sarrera eta ongi etorria
- Lan taldeen balantzeen aurkezpena
 - o Egitarau lan taldea
 - o Komunikazio lan taldea
 - o Diruzaintza lan taldea
 - o Barra lan taldea

- Lan dinamika

Aurretiaz aurkeztu ditugun balantzeak kontutan hartuta eta urtean zehar ikusi, egin eta sentitu duguna kontutan hartuta lehen urte honen inguruko balorazioa egiteko txanda heldu da, dinamizazioa errazteko honako gai hauek planteatzen ditugu aztergai bezala, beti ere gai zerrenda zabala dela kontutan hartuz.

Azpiegitura eta garbitasuna

Parte-hartzea eta inplikazioa

Egitaraua

Astra proiektua Gernika-Lumon

Ekonomia-finantziarioa-autogestioa

Harreman instituzionalak

Urteko balorazio orokorra

...

- PLENARIOA
 - o Astra gidaren aurkezpena
 - o 3KM prozesuaren aurkezpena
 - o Balorazioen plenaria

1go LAN TALDEAREN BALORAZIOA

- ORDENA: materialak leku zehatza behar du eta beti antolatua, 4 multzotan:
 - o Tailerra
 - o Garbitasuna
 - o Eskatza
 - o Eszenatokia
- GARBITASUNA: sistema bat zehartu beharko zen garbitasuna mantentzeko. Eta garbiketa sistema ikustaraztea: erregistro bat. 1go solairua elkarte erabiltzaileen artien garbitzia. Adib: Barrako turno funtzionamendu eredu antzerakoa
- ERRETZEARI buruz harturiko erabakiaren berri eraikinean azaltzea elkarre eta eragile parte hartzaileentzako espazio egokia da
- AZPIEGITURA: elkarte eta eragile parte hartzaileentzako espazio egokia da. Espazio eta erraztasunengatik eta sortu dan giroarengatik.
- UR BEROA: plaka solarrak ur beroa jartzeko
- MATERIALA: plastiko gutxiago
- SUKALDEA: martxan jarri beharko litzateke
- 20-30 urte bitarteko jendearen faltie ikusten dugu.
- Jendeak sentitzea Astra beran zati bat dala
- EGITARAUA: jendeak jakitea egitarau lan taldearen funtzionamendua zein da (datozen proposamenak koordinatzen dituela soilik)

2. LAN TALDEAREN BALORAZIOA

- ≡ Antolatzaileei ardura gehiago eskatu beharko litzateke (garbitasuna). Kartelak jarri behar edo informazioaren gizarteratzean
- ≡ 2. Solairua kultur taldeentzat atondu beharko litzateke
- ≡ komunikazioa oso ondo lantzen de kanporantza, baina barne komunikazioa hobetu beharko litzateke.
- ≡ Sukaldea martxan jarri beharko litzateke: asteburuetarako edo pintxoak eta egiteko
- ≡ Diruzaintza: datuak oso pozgarriak dira. Planteatu beharko gineteke FIARE moduko bankuekin lan egitea

- ≡ 18 – 30 urte bitarteko gazteak ez daude Astran
- ≡ Batzar gelak prestatu beharko lirateke goiko solairuak (bereiztuak)
- ≡ Eraginkortasun energetikoaren gaia landu beharko genuke
- ≡ Gazte Asanblada behar beharrezko da herrian

3. LAN TALDEAREN BALORAZIOA

AZPIEGITURA ETA GARBITASUNA

- o Ekitaldi handietarako ditugun baliabideak ez dira aski
- o Ordu muga luzatu beharko genuke
- o Efizientzia energetikoa: kalefazio gehiegi, argi gehiegi,... argi naturala aprobetxatzen ikasi behar dugu
- o Batzarretarako baliabideak urri gelditzen dira. Distribuzioa berplanteatu beharko litzateke
- o Ur beroa
- o Garbitasun prozedimentuak... ekitaldiak antolatzen daben eragileei luzatu – erraztu – eta gogoratu beraien eginbeharra dela
- o 2. Solairuan, baliabide gutxierekin, 2 bilera gela atontzea

PARTEHARTZEA ETA INPLIKAZIOA

- o Astrak herri mugimenduak zirikatu eta mugiarazten ditu
- o 16-24 urte herritarrak eta Astraren artean barrera invisible bat dago.
- o Gazte asanblada bat falta da
- o Lanketa bat egin: lonja, intitutua eta 3 - .DBH
- o Taldeei intimitate gehiago eman behar diegu

EGITARAUA

- o Astran ez, herrixek antolatzen dau egitaraua
- o Eragileei harremanetarako informazio gehiago
- o Antolatzen diren ekitaldi gehienak ordaindutakoak dira

GERNIKA-LUMO – INSTITUZIOAK

- o Astra hurbileko eragile moduan ikusten da

- o Umeen txokoak asko laguntzen du horretan

4. LAN TALDEAREN BALORAZIOA

AZPIEGITURA ETA GARBITASUNA

- Hilean pare bat aldiz garbitasun haundi bat egin
- Garbiketarako protokolo baten garapena
- Komun bakoitzien garbiketarako gauzak izan, armarixotxo baten do, norberak in ahal izteko nahi dabenian
- Auzolana ezta eraginkorra, oso flojoak izan dira azkenaldian
- Astra oso baliabide ona da, gainera oso aktibeta dau

PARTEHARTZEA ETA INPLIKAZIOA

- Gazteak hurbiltzeko ekintza gehixau
- Futbolina
- Adin tarte ezberdinak inplikazio ezberdinak
- Astra gida lonjatatik banatu beharko litzateke

EGITARAUA

- Erreferentzia bihurtu da, egitarau internazionala
- Euskerien eremua
- Gazteleraz mintzatzen direnak Astratik urrun daude
- Eduki batzuk beste hizkuntza baten ere kaleratu beharko genituzke, adibidez: ingelesez

ASTRA PROIEKTUA GERNIKA-LUMON

- Minimo batzuk jarrita daude
- Kanpo parte hartze falta dago, beti berdina dabilta astra inguruan
- Jentiek ondino lan urrun ikusten dau
- Gaztiek kontzertuetara eta etortzen dira baina ez lan egitera: turnoak, auzolanak,...
- ASTRAGIDA: egitarau ezberdinak, zer egiten da, urtien pasautako guztixe. Hor ikusiko da nork nahi daben parte hartu

FILOSOFIKOKI

- Kudeaketan beharbada ez ditugu irizpideak beti errespetatu
- Baina orokorrian sustraiak ondo finkatuta ditugu
- OKM-n harturiko erabakiak gehiago gizarteratu beharko genituzke

5. LAN TALDEAREN BALORAZIOA

- datu itzelak
- turno boluntarioak, kejak egon dira, beti antzerakoak turnoak egiten
- turnotan jende gaztea sartu
- ezjakintasuna astraren inguruan: funtzionamendua, informazioa banatu: garbitasuna, turnoak,...
- zeintzuk dira erabiltzaileen betebeharrak: argi ta garbi kaleratu
- Astrako elkarteak ere turnoetan lagundu beharko lukete
- Gazte gutxi gaude astrako egituratan

6. LAN TALDEAREN BALORAZIOA

AZPIEGITURA ETA GARBITASUNA

- ✓ Festibalen ondoren garbiketa jarraian egin beharko litzateke, antolatzaileen ardura
- ✓ Karga handixe jauzten da Adri eta Goizanengan
- ✓ Batzarren ondoren ere gauzak txukundu barik gelditzen dira
- ✓ Garbiketarako antolaketa egitura bat finkatu beharko litzateke. Protokolo bat
- ✓ Baliabide gutxi, adib. proiektora bakarra
- ✓ Iluntasuna dagoen toki bat, proiektoragaz lan egiteko
- ✓ Kartelak jartzeko sistema bat pentsatu beharko genuke

PARTEHARTZEA ETA INPLIKAZIOA

- ✓ Gaztien kontzientzixe
- ✓ Ideia asko baina biharbada denborarik ez ideia horiek garatzeko

- ✓ Orain arte ibilbidearen oso balorazio positiboa
- ✓ Talde berri asko daude, aniztasuna, zabaldu egin da
- ✓ 18-30 urte bitarteko gazteak, astran gehixau sartu

EGITARAUA

- ✓ Oso ondo, potente
- ✓ Interesgarriena herritar eta taldeak direla antolatzaile eta ez koordinadora
- ✓ Erakusketetarako azpiegura prest izan beharko genuke

ASTRA PROIEKTUA

- ✓ Kaletik esaten da "Astran dana indda dakoze..."
- ✓ Ondo egongo zan klaru iztie bolondres lana dala
- ✓ Orokorrian ikuspegi oso ona
- ✓ Parte hartzen dozun momentuan ikusten da danona dala, tresna bat dala
- ✓ Gerniken mugimendu asko dago
- ✓ Egitaldi asko gauez, zenbat egin dira egunez?
- ✓ Gaua eta alkola batuta doaz

ARLO EKONOMIKOA

- ✓ Trukie gehixau bultzatu
- ✓ Alkohola gestio sarrera moduan, ez dago beste biderik?
- ✓ Sukalde on bat beharrezkoa da, ikastaroak , jatekoak , ... diru iturri bat gehiago izango litzateke.
- ✓ Balorazio oso ona

ERAKUNDE PUBLIKOAK

- ✓ Informazio gehiago egon beharko litzateke gai hau dela eta

BALORAZIOA

- ✓ Oso positiboa, jende asko, aniztasuna
- ✓ Hurrengo belaunaldiei transminisoa eman behar diegu
- ✓ Inmigrazioaren kontua gehiago landu beharko litzateke
- ✓ Emakumeen gehiengoa

- ✓ Gazteak falta dira: 18-30

BALORAZIOA OROKORRA

Lehen urtea izaki, ikasketa eta hausnarketa konstanteen urtea izan da. Astran finkaturik dituen oinarri filosofikoak izan dira proiektuaren muina, eguneroko lanaren oinarria. Balantzeen azterketa egiten badugu oso balorazio positiboa egiten dugu, mundiala. Astran izan duen agenda ez da soilik interesgarria bere aniztasun eta ekimen kopuruarengatik, batez ere esanguratsua da egitarau honen antolatzaile eta ardura izan dutenak herri mugimendu eta eragileak izan direla. Agenda eragileek sortu eta garatu dute eta astra egitarau lan taldeak hauek koordinatzen lagundu du.

Aipatu behar dugu ere gure autogestio eredia oinarri harturik, oso emaitza onak lortu ditugula lehen urte honetan. Hiru dirusarrerara nagusi izan ditugu (ikusi grafikoa):

- Dirulaguntza: eraikinaren eraberritze lanekin batera dirulaguntza batera aurkezteko autoa egin zuen bere garaien astra asanbladak, erabaki hartan dirulaguntza hau jasotzea proiektua martxan jartzeko helburuarekin eskatzea erabaki zen, modu aislatu batean. Hurrengo urteei begira ez da inolako sarrerarik aurreikusten ildo honetatik.
- Udalaren erantzunkizunak: eraikin publikoa izakia, udalaren erantzunkizuna da, bertan dauden honako gastu hauen kargu egitea: ura, argia eta berokuntza sistema.
- Autogestioa: proiektuaren oinarri eta izaera dugu honako hau. Lehen urte honetan eginiko lanaren ondorioz proiektu autogestionatu bat izatea lortu dugu. Maiz balorazio hau soilik arlo ekonomikoari begira egin behar dugu baina garrantzia berezia eman nahi diogu lanari, egunerokotasunean egiten dugun lanari: montaje, garbiketa, turno, auzolan, kartel banaketa, gestio lanak,... lan hau ez dugu dirutan zenbatzen baina autogestionaren eremu nagusia da.

Astra beharrezkoa da herrian, beharrezko baliabidea herri mugimenduarentzako. Lehen urte honetan identifikatu dugun hutsunetako bat, gazteen presentia eta partehartze baxua izan da. Egia bada ere herrian gazte mugimenduak badaudela eta oso ekimen osasuntsuarekin: txutxu, ernai eta lobak. 18-30 urte bitarteko gazteak ez dute astraren okupazio honetan parte hartzen. Hurrengo urteei begira hauxe izango da Astraren lan nagusienetako bat, bideak eraiki eta erak topatu gazteak astrakide izan daitezen. Balorazioa egin denetan, hitzegin da herrian gazte asanblada baten gabeziak ildo hau lantzea zailtzen duela, herri honek gazte asanblada bat beharrezkoa duela.

Eraikinari dagokionez ere, ainbat gai jorratu ditugu. Batetik urte honetan lan handia egin dugula badakigu eta inbertsio ekonomikoa behar duten azpiegiturak bideratu ditugula baina oraindik badaude lan batzuk egiteko. Batetik espazio diafamoak izanik eta 2. Solairua ere ez dagoenez erabilgarri bilerak egiteko espazio irekiak erabiltzen ditugu. Egoera honek ez du laguntzen taldeak bilerak modu egokian egitea. 2. Solairua ikusten da bilera gelak egoki jartzeko espazio moduan. Baliabideei dagokionez ere, inbertsio nagusiak egin baditugu ere, politiki politiki beste baliabide batzuk eskuratzen

Joan beharko ginateke: dibisoriak, erakusketan egiteko baliabideak,... Planteatzen den eta asanbladan dexentetan errepikatu zen beharrizan bat sukaldearena izan da. Egia da lehen urte honetan elikagaien inguruko ikastaro dexente izan ditugula astran eta baliabide hau ez izateak dexente konplikatu duela lana... ahaztu gabe kontzertuetan ere afariak egiten direla...

Asanbladan behin eta berriz errepikatu den gaietako bat energiaren gaia da. Bere garaian 1KMan proiektu arkitektonikoa egin genuenean energiaren gaia espreski landu bagenuen ere eraberritzea egin denean ez da kontutan hartu eta autosufizientia energikoaren inguruan ez da urratsik eman. Astran ez dugu ur berorik eta gaur egun udalak kontratatuak dituen multinazionekin funtzionatzeari buruz ez gaude ados. Plaka solarrak jartzearen aukera planteatzen da, honekin behintzat ur beroa izango genuke.

Proposamen konkretuak

- Sukaldea
- Erakusketak egiteko azpiegiturak
- Bilera gela gehiago, intimitatearen gaia
- Erretzeari buruzko erabakia publikoan jarri
- Garbitasun protokoloa
- Ordu muga luzatu festietan (gaur egun 01:00ak)
- Kartelak jartzeko sistema bat landu
- ...